

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2827

16/2015 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Lehendakariarena, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Instituturen jarduerari ekiteko xedatzen duena.

Azaroaren 27ko 4/2014 Legearen bitartez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu zen, izaera administratiboko organismo autonomo gisa. Euskal Autonomia Erke- degoko Administrazio instituzionalean sartuta dago, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna osoa ditu, beraren politika publikoaren garapenari dagokion jardun administratiboa deszentralizazio-erregimenean gauzatzeko, politika hori datzalarik giza eskubideen bermean, bul- tzadan eta garapenean, memoriaren sustapenean eta bizikidetzaren demokratikoaren aurrerapen eta garapenean.

Aipatutako legearen 1.3 artikuluan arabera, Institutua memoriari eta bizikidetzari buruzko poli- tika publikoa bultzatzeko ardura eta eginkizunak esleituak dituen Administrazio orokorreko sailari dago atxikita, institutuaren egitura organikoa ezartzen duen dekretuak zehaztutako moduan.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak ezarritako eskumen banaketaren ara- bera –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen dekretu horrek– eta apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuak jasotakoaren arabera –Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen dekretu horrek– Lehendakariari atxikita dago Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.

Azaroaren 27ko 4/2014 Legearen lehen xedapen gehigarriak dio Institutuak bere jarduerari ekingo diela atxikita dagoen Administrazio Orokorreko sailaren organo goren titularraren agindu bidez.

Beraz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak erakundearen aurrekontuak eta lanpostuen zerrenda onartu eta erakundearen jarduerari ekiteko behar beste langilez hornitu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Institutuak bere jarduerari ekitea.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua abian jartzeko eguna 2015eko uztai- laren 1a izango da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 17an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.